

HEOko azterketa eredua – Euskara B2 – Irakurriaren Ulermena

1. ARIKETA

Ariketa honetan uholdeei buruzko artikulu bat duzu eta sei galdera. Aukeratu erantzun egokia (a, b, c) adibidean (0 zenb.) bezala.

Uholdeen aurrean, zer egin?

Iruñerrian inoiz erregistraturiko ur-emari handiena jasan berri dute bizilagunek, Argak eta Ultzamak gainezka egin ostean. Pasa den urtarrilean, 2.000 hektarea baino gehiago hartu zituen gainezka egindako urak Erriberan...

Adibideak baino ez dira, eta etorkizunean euri-jasak %10 ugarituko direla aurreikusi du Azti-Tecnalia ikerketa zentroak. Ezin da ahantzi fenomeno naturala direla euriteak eta hauek eragindako uhaldia. Ibaien ekosistemak dinamika propioa dauka eta bere oreka naturala mantendu ahal izateko, aldizkako uholdeak ezinbesteko fenomenoak dira. Arazoa da, ordea, aipaturiko ekosistemak eraldatuak izan direla, urak gainezka egiteko behar dituen eremuak lapurtu dizkiogulako ibaiari, azpiegiturak eraikiz: (zubiak, urtegiak, presak...). Horri lurzorua artifizialtzea gehitu behar diogu, ura xurga dezaketen lurak gero eta eskasagoak baitira.

1950eko hamarkadan bizkortu zen ibaiertzen okupazioa eta, orduan, gero eta uholde-esparru gehiago eraldatu eta geureganatu ditugu. Errepideak, aparkalekuak, etxeak eraiki dituzte hezeguneetan eta ibaien ubidea estutzea ekarri duten obrak ere egin dira. Areago, Espainiako Estatuko Cambó Legeak sustatu egiten zuen padurak idortu eta okupatzea, gune antzuak zirela argudiatuz. Ekosistema hauen garrantziaren eta arriskuen jakitun ez zirelako, gai honetan agintariak oso geldo eboluzionatu dutela baina azken urteetan administrazioetik ikuspegia aldatzen ari direla uste du Jose Maria Sanz de Galdeanok, URA Uraren Euskal Agentziako Plangintzen eta Lanen zuzendariak.

Ibaiertzean gehiago ez eraikitzea da lehen urratsa, bai, baina zer egin dagoeneko eraiki den guneetan? Konponbide egokiena eremu horiek erabat hustea dela uste du Garridok, baina gehienetan toki horien artifizialtze maila hain da handia, "ezen jada ezinezkoa da jatorrizko egoera naturalera itzultzea".

Zeintzuk dira, dena den, gaur gaurkoz uraldiei aurre egiteko herri askotan hartzen diren neurriak? Hormak edo barrerak altxatzea izaten da aukera nagusietako bat, baina sarri ez da hautu zuzena. Nekazal guneetan oso zabaldua dago urari oztopoa jarri nahian eta inguruko soroak babesteko asmoz barrerak ezartzea, Araba eta Nafarroan bereziki. Horma gainditu edo apurtuz gero, ordea, emariaren erosio maila eta indarra handitu egiten da, kalteak areagotuz, eta gainera, ordu gutxitan ubidera bueltatuko litzatekeen urak egunak iraungo ditu zelaietan geldituta, hormak galarazi egiten diolako ibaira itzultzea. Oztopoa gainditzea lortzen ez duenean ere, hormek estututa presio eta abiadura handiagoz jaisten da ura eta aurrerago bortitzago egin dezake gainezka.

Dragatzea da udalak erabaki ohi duten beste neurrietako bat. Baina ibaiak eurak bakarrik garbitzen eta dragatzen direla azaldu digu Sanz de Galdeanok, eta guk dragatzen baditugu, hurrengo uhdaldian ibaia aurreko egoerara itzuliko dela berriz, sedimentu berriek beteko baitute hutsik geratu den lekua. Horregatik, otsailean Gasteizko Udalak Errekaleor eta Santo Tomas ibaietan sasitza kendu eta garbiketa lanak egiteko aurkezturiko milioi bat euroko proiektua diru-xahutze hutsa dela kritikatu du Eguzkik. Sedimentu naturalak ezabatuz bidearen sakonera eta zabalera handitzeak ez du ezer konpontzen.

Urtegiek ere badute zeresanik honetan guztian. Oso urtegi txikiak badira, ez dute gaitasunik ur-emarian eragiteko. Aldiz, urtegi handiagoek ibaien gainezkatzea txikitu eta hein batean gelditu dezakete, kudeaketa eraginkorra eginez gero. Presari esker uraren jarioa eten eta modu kontrolatuan emari

txikiagoa ateratzen uztea litzateke konponbidea. Baina urtegiak muga bat dauka eta ur gehiago bildu ezin duen mailara iritsiko balitz, sartzen ari den emari guztia askatu beharko luke; ondorioz, presa azpiko uholde-eremuetan azpiegiturak eraiki badira, benetako tranpa bihur daitezke leku hauek. Urtegiak euriari eusteko gai ez badira, sortzen den arazoa oso larria izan daiteke, hortik aurreikuspenen garrantzia, euri-jasak hasi aurretik urtegia behar adina hustu eta lekua egin aldera.

Argia. Mikel Garcia Idiakez (moldatua)

0. Azti-Tecnalia ikerketa zentroak aurreikusi du...

- a) Euri-jasak gutxituko direla.
- b) Euri-jasak ugartuko direla.
- c) Euri-jasarik ez dela berriro gertatuko.

1. Aldizkako uholdeek ibaiei...

- a) kalte handia egiten diete haien ekosisteman.
- b) laguntzen diete oreka naturalari eusten.
- c) ur-emaria gutxitzen diete.

2. Ibai-bazterrak okupatzen baditugu...

- a) ibaiei bide egiten lagunduko diegu.
- b) uholdeak ekidingo ditugu.
- c) uholdeak gertatzeko arriskua handituko dugu.

3. Ibaiertzen kudeaketan, Sanz de Galdeanoren ustez...

- a) agintariak bestelako gestioa egiten hasi dira.
- b) agintariak azkar aldatu dute arazoari aurre egiteko modua.
- c) agintarien gestioak ezin txarragoa izaten segitzen du.

4. Urari barrerak jartzeak...

- a) arazoak ekar ditzake urak oztopoa gaindituz gero.
- b) ez dakar arazorik, urak barrerak haustea ezinezkoa baita.
- c) konponbidea dakar nekazal guneeetan.

5. Gasteizko Udalak garbiketa lanak egiteko milioi bat euro erabiltzea...

- a) batzuen ustez alferrikako gastua izango da.
- b) eredugarria da beste udal askorentzat.
- c) hartu daitekeen neurririk egokiena da.

6. Urtegiek lagun dezakete uholdeen arazoa konpontzen...

- a) batez ere txikiak badira.
- b) euria egiten duenean izan ezik.
- c) uraren jarioa graduatu dezaketelako.

Galderak	0	1	2	3	4	5	6
Erantzunak	B						

2. ARIKETA

Ariketa honetan Mendi-martxen gaineko sei testu-zati dituzu eta zortzi esaldi. Lotu testu-zati bakoitza bere esaldiarekin, adibidean (0 zenb.) bezala.

<p style="text-align: center;"><u>ESALDIAK</u></p> <p>X. mendi ibilbideak antolatzen dira toki berriak ezagutu nahi dituen jendearentzat..</p> <p>A. Egarrirako eta goserako aholkuak ezagunak dira.</p> <p>B. Euskadiko hiru probintziak zapaltzen dituen Mendi-martxa bat dago.</p> <p>C. Gure herrian mendirako zaletasuna aspalditik dator.</p> <p>D. Harritzen gara garai batean mendi martxak nola egiten ziren ikustean.</p> <p>E. Mendi-martxak egiteko sasoi onean egotea ezinbestekoa da.</p> <p>F. Mendi-martxak hasieran debekatuta egon ziren.</p> <p>G. Ondo ekipatuta joatea ere garrantzitsua da.</p> <p>H. Oso garestia da Mendi-martxa batean parte hartzea.</p>	<p style="text-align: center;"><u>TESTU ZATIAK</u></p> <p>0) Hango eta hemengo elkarteek mendi ibilbideak antolatzen dituzte, tontorrak igo eta paraje berriak bisitatu nahi dituztenentzat. Eraldatze prozesu horretan etorri dira egungo Iraupen Luzeko Mendi Ibilaldiak. 8tik gora ordu, 40tik gora kilometro eta 1.800etik gora metro desnibel. Mendizaletasunari egindako erronka bat da, ezbairik gabe, egunetik egunera zale gehiago erakartzen dituen.</p> <p>7) Esperientzia handiena duten elkarteak Donostiako Club Deportivo Fortuna eta Tolosako Aralarreko Adiskideak dira. Horiek hasi ziren mendi ibilaldiak antolatzen eta ikusi beharra dago hasieran, orain dela 20 urte, zenbat jendek hartzen zuen parte, eta nola. Adibidez, garai hartan ateratzen zirenek txorizoa jan eta kafea eta garagardoa edaten zituzten indarra hartzeko.</p> <p>8) Euskal Herriak betidanik izan du mendiarekiko atxikimendu berezia. Euskal Herriaren historia liburu orotan daude jasota euskaldunek mendian eta mendiei egindako argazkiak. Antzinako zaletasun horrek bilakaera bat izan du, mendian ibili ez ezik, gaur egun, kirola ere egiten baita horren aitzakian. Mendi lasterketak egiten dira, oinez nahiz bizikletaz, baita zaldiz ere. Baina antzinako mendizaletasunari ondoen eusten dion jarduera Mendi martxen inguruan sorturikoa da.</p> <p>9) Euskal Mendi Federazioak arautzen ditu herriko elkarteek antolatzen dituzten mendi zeharkaldiak eta, horren harira, 17 artikuluko araudi bat egin du. Argi diote zortzi orduko mendi zeharkaldiak egin nahi dituenak prestaketa fisiko egokia behar duela izan. Horretarako, korrika eta bizikletan ibiltzea oso da gomendagarria, birrikak eta bihotza lantzen direlako. Horrez gain, ezinbestekoa da mendian esperientzia izatea.</p> <p>10) Materialari dagokionez, askotarikoa aurkituko du gaur egun mendizaleak. Ez da erraza izaten, ordea, ordu askoko ibilaldi baterako egokiena aukeratzea. Zapatila arinak baino egokiago izaten da mendiko botak erabiltzea, zola hobeto atxikitzen zaiolako lurrari. Arropa eroso eta malgua janztea komeni da gainera.</p> <p>11) Euskal Mendi Federazioak barne hartzen dituen elkarteek makina bat mendi ibilaldi antolatzen dute urtean zehar. Horien guztien artean Hiru Handiak da ospetsuena. Euskal Herriko hiru tontor nagusiak (Anboto, Gorbea, Aizkorri) lotzen ditu. Hiru Handiak tradizio luzeko mendi-ibilaldia da. Kantaurialdeko eta Mediterraneoko urak banatzen dituzten mendiak elkartzen ditu eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurak zeharkatzen ditu, ekialdean hasi eta mendebaldean amaituta.</p> <p>12) Mendi-martxa hauek egiteko gomendioak ezagunak dira. Eguraldi beroa eta lehorra egiten badu, adibidez, hornidura guneeetan ura hartu behar da, ibilbideko iturri asko lehortuta egon baitaitezke. Oro har, gosea izan aurretik</p>
---	--

jatea eta egarria izan aurretik edatea komeni da. Bestalde, gauean arretaz ibili behar da, batez ere euria egin badu eta lurra labaina badago. Behelainoa ere arazo izan daiteke: halako egoeretan komeni da taldeka ibiltzea, eta bidearen berri dakitenekin, ahal dela.

Argia, Ainhoa Lendinez,(moldatua)

Esaldiak	0	7	8	9	10	11	12
Testu-zatiak	X						

3. ARIKETA

Ariketa honetan adimen artifizialaren gaineko artikulua bat duzu sei hutsunerekin. Zortzi esaldi edo esaldi zati eskaini zaizkizu. Hutsune bakoitzari hautatu dagokiona X adibidean bezala. Hiru esaldi zati sobera daude. Esaldiak behin bakarrik erabili ahal dira.

Adimen artifizialaz

Adimen artifizialaren potentziala ikaragarria da, _____ (X)_____. Zientziaren garapenean funtsezkoa da, baina jada milaka lan arruntetarako ere erabiltzen dugu: posta elektronikoa arriskutsuak modu automatikoan antzematek, _____ (13)_____. Etorkizunera begira, adimen artifizialak giza adimena gaindi dezake esparru guztietan, eta horrek potentzial handiko aukerak zabal ditzake. Ez dakit inoiz horrelakorik lortuko dugun, baina teorikoki ez legoke arrazoirik hori ez gertatzeko.

Erronka zientifikoak handiak dira, ordea. Azken urteotan lortutako aurrerapenekin ere, esango nuke adimen artifiziala oraindik hastapenetan dagoela. Gaur egungo sistemek datu batzuetatik ikasten dute, eta, ondoren, _____ (14)_____, ongi funtzionatzen dute. Baina orokortzeko gaitasun txikia daukate oraindik. Datu berriak emanez gero ez dute ongi funtzionatzen, gizakiok ez bezala. Ziur aski, gaitasun hori lortzeko, beste zenbait erronka garatu beharko dira: bestelako ikasketa-algoritmoak, memoriaren kudeaketa eta arazoiketa sinbolikoa, besteak beste.

Gaur egungo gure sistemek hutsune-pilo bat dute. Orokortzeko gaitasun ezaz gain, _____ (15)_____. Adibidez, xakean jokatzen dakien sistema batek xake-jokalaria onenei gailentzeko ahalmena dauka, baina hori bakarrik egiten daki, ezin du auto bat gidatu ala sudokuak ebatzi. Gizakiok gauza asko egiteko gai gara, eta oso ongi gainera (onartzen dut baieztapen hori oso eztabaidagarria dela). Baina gure sistemak oraindik oso espezializatuak dira. Nola lortu ataza anitzeko sistemak?

Beste hutsune argi bat datuen erabileran dugu. Gaur egungo sistema onenek etiketatutako datu-multzo erraldoiak erabiltzen dituzte. _____ (16)_____, oraindik ez dakigu nola erabili behar bezala etiketatutako datuak (ikasketa ez-gainbegiratuak). Ez da gauza bera argazki batzuk ikustea eta norbaitek esatea argazki bakoitzean zer dagoen, edo argazkia inongo azalpenik gabe ikustea. Bigarren kasuan, gizakiok gai gara informazio baliagarri pila bat ikusteko. Makinak, oraindik ez.

Teknologia oro bezala, adimen artifiziala ongi ala gaizki erabil daiteke. Hori ez da teknologiaren arazo bat, _____ (17)_____: zertarako erabili nahi ditugu adimen artifizialean oinarritutako teknologiak? Klima-aldaketaren aurka borroka egiteko erabil ditzakegu, baina baita jendearen iritziz politikoak manipulatzeko ere. Nire ustez, legeak teknologiaren erabileraren helburua arautu beharko luke, eta ez teknologia bera. Niri ez zait axola pertsona batek zer teknologia darabilen nire iritziz politikoak manipulatzeko; axola zaidana da nire iritziz politikoak manipulatzen nahi dituela, eta, beraz, horregatik zigortu beharko genuke. Horrenbestez, ez zait iruditzen adimen artifiziala beste teknologiekiko desberdina denik.

Norbaitek esan dezake: baina sistema horrek bere kasa erabakitzen badu kaltegarriak diren ekintzak gauzatzea? Aukera hori teknologikoki oso urrun dago, baina gerta litekeela pentsatuz gero, makina hori bere ekintzen jabe bada, egiten dituen ekintzen ondorioen erantzule izan beharko luke, _____ (18)_____.

Ikuspegi zientifiko batetik, gehiago kezkatzen naute beste gauza batzuek. Esaterako, sistemek datuetatik eta esperientziatik ikasten dutenez, eta bai datuak bai esperientziak gure eskuetatik lortzen dituztenez, ez al ditugu gure joerak errepikatu eta hedatuko? Jada, ikusi dugu gizakiok idatzitako testuen bidez entrenatu diren sistemek joera matxistak dituztela. Ez da sistemaren akats bat, datuena baizik. Modu filosofikoagoan esanda, posible al du gizakiak bere hutsegiteak ekidingo dituen makina adimentsu bat sortzea?

Elhuyar. Gorka Azkune Galparsoro. (moldatua)

X. EZ DA HORI UKATZEN DUENIK

- A. ADIMEN ARTIFIZIALA AHULDU ARTE
- B. ANTZEKO DATUAK EMANEZ GERO
- C. AURRERAPENAK LORTU DITUGUN ARREN
- D. BADUTE BESTE HAINBAT GABEZIA
- E. GIZAKIAK DIREN BEZALAXE
- F. GIZAKION ARAZO BAT BAIZIK
- G. GURE ARGAZKIEKIN ALBUMAK EGITERAINO
- H. HONDATZEN DIRENEAN

Hutsuneak	0	13	14	15	16	17	18
Testu zatiak	X						

4. ARIKETA

Ariketa honetan alkoholaren kontsumoari buruzko artikulua duzu 8 hutsunerekin. Aukeratu ezazu erantzun egokia (a, b, c) testuko hutsune bakoitzarentzat, adibidean (0) bezala.

Alkohola ere debekatuko al dute?

Espainiako Tabakoaren Legeak urteak bete ditu dagoeneko, eta aspaldi baretu da lehenengo egunetako ____0____. Hurrengo pasarteak alkohola eduki dezake protagonista. "Alkoholaren aurkako arau bat behar dugu, tabakoaren kontra egin denaren antzekoa", esan zuen Elena Salgado Madrilgo Osasun ministroak urtarrila hasieran, erretzeko debekuek sortutako hika-mika ____19____ zegoela. Handik egun gutxira, baina, Salgadok nabarmendu egin zuen araudi berria ezin zitekeela izan tabakoarekikoa bezain erabatekoa, eta helburua "alkohol kontsumoak sortzen dituen arazo zehatzei ____20____" izan behar zela. Ministroaren iritziz, lan eta auto-istripuak eta nerabeek gehiegi edatea dira arazo horietan larrienak. Ministerioko iturriek, berriz, ez digute gehiegi argitu auziaz, eta hitz bakarra errepikatu digute behin eta berriro: kontsentsua.

Osasunari egiten dioten kaltea oso ezaguna izanagatik ere, tabakoa eta alkohola legezko drogak dira, eta hori ez ezik, ____21____ sakonak dauzkate gure artean. Alkoholak batik bat, lehenagotik ezagutzen dugulako besterik ez bada ere. "Erromatarrek goldea ekarri ziguten, baina baita mahatsondoa ere", diosku *Etorkintza* Fundazioko Pedro Espallargasek.

Etorkintza drogomenpekotasunean lan egiten duen erakundea da, Bizkaian gehienbat. Aspaldi daukate ikastetxeetarako programa bat, drogak erabiltzeak ekar ditzakeen arriskuak ____22____ aldera. "Ez dugu esaten drogak hartu behar ez direnik, eta ez dugu legezko eta legez kanpoko drogen arteko bereizketarik egiten", azaldu digu Espallargasek. Gazteekin ari da lanean *Etorkintza* batez ere, eta gazteen eta alkoholaren arteko ____23____ da Espainiako Osasun ministroa gehien kezkatzen omen duena, baina Espallargasek azpimarratu nahi du "txikitatik aita eta ama direla edaten irakasten digutenak". Alkohola eta ospakizuna sinonimo bihurtuak dira gurean, eta zenbait alditan ia ____24____ da edatea. *Etorkintza*koaren ustez, "kontua da gazteak gehiago nabarmentzen direla, euren edateko eragatik".

Oraindik ere, okerrago begiratzen diogu kalean mozkor doanari, erretzen ari denari baino, baina oro har, Atlantikoaren beste aldetik etorri zaizkigun tabakoaren kontrako haizeek ez diote alkoholari ____25____ momentuz. "Tabako-paketeetan, oraingo esaldiak ez ezik, birika gaixoen irudiak jartzea proposatu izan da", dio Espallargasek, "baina norbaitek irudika dezake zirrosiak jotako ____26____ baten argakia edo "alkoholak sexu-harremanak eragozten ditu" bezalako esaldi bat Errioxa ardo botila on batean itsatsita?". *Etorkintzak* ikastetxeetarako dauzkan programen zutabeetako bat, hain zuen, droga batzuek gizartean duten onarpenaren zergatiak azaltzea da.

Argia/Unai Brea (moldatua)

<p>0 adibidea</p> <p>a) kea b) proposamena c) <i>zalaparta</i></p>	<p>19</p> <p>a) ozta-ozta b) puri-purian c) zoko-moko</p>	<p>20</p> <p>a) aurre egitea b) men egitea c) zotz egitea</p>	<p>21</p> <p>a) erro b) kimu c) labe</p>	<p>22</p> <p>a) ahazte b) murrizte c) zorrozte</p>
	<p>23</p> <p>a) haria b) harremana c) hesia</p>	<p>24</p> <p>a) derrigorrezkoa b) ezinezkoa c) gehiegi</p>	<p>25</p> <p>a) bete b) eragin c) moztu</p>	<p>26</p> <p>a) bele b) garden c) gibel</p>

Galderak	0	19	20	21	22	23	24	25	26
Erantzunak	c								